



## Santimamiñeko koba (Kortezubi)

Santimamiñeko koba Urdaibaiko arroaren eskuineko ertzeko mendikatea osatzen duten Kretazeo azpiko kareharrietan irekita dago, zenbait kilometrotan zehar iparralderantz doalarik. Kobraren sistema karstikoa osatzen duten galera guztietatik hasierako 1.000 metroak egokitu dituzte jendeak bisita ditzan.

Santimamiñeko multzoa galeria nagusian zehar egituratuta dago. Bertan ganbarak eta pasabide gehiagok txandakatzen dira. Txandapen hori pare bat aldiz eteten da ganbaratxo txikiak osatzen dituen alboko dibertikulu bana garatzeko.

Santimamiñeko haitzuloak, geologi alderdien pean aztertuak, edertasun handia agertzen du, iragazpen burdintsuek koloreztaturiko estalaktitengatik, grabitatearen legeei erronka egiten dieten estalaktita eszentrikoen zerranda luzeengatik, eta urtegi txiki-txikien antzekoak diren antzinako *gouretako* hormengatik.

Koba Bizkaiko Foru Aldundiak egokitu zuen, elkarren segidako faseetan, multzoari egungo itxura eman arte. Horretarako erabili zuen azpiegitura bisitatu ahal zen alde osoan zeharkako pasagune eta eskaileraz egituraturik dago. Era berean, kaltzitaren forma apertatsuek birsortzen dituzten zeharkako argi elektrikoak instalatu dira.

### Arkeologi aztarnategia eta santutegi paleolitikoa.

Arkeologi aztarnategia kobaren lehenengo tartean dago, eguneko argia heltzen den tokian. Bi etapatan hondeatu zen. Horrela, Euskal Herriko eta, bereziki, beronen isurialde kantabiarreko historiaurreko azterketetarako eredu kronologiko eta estratigrafiko nagusia finkatu zen.

Santimamiñeko arkeologi potentziala T. Aranzadik, J.M. Barandiaranek eta E. Egurenekin egin eta zenbait liburukitan argitaratutako hondeaketa-kanpainen bitartez da agerian: *Santimamiñeko haitzuloko azterketak (Basondo: Kortezubi)*. 2. *Memoria. Maskortegi eta zeramikadun mailak. (1931)* eta *Santimamiñeko haitzuloko azterketak (Basondo: Kortezubi)*. 3. *Memoria. Aztarnategi Aziliense eta Paleolitikoa. (1935)*.

Oro har, Santimamiñeko sekuentzia estratigrafiko korapilatsua, I. Barandiaranek azaldutako balizkoaren arabera, honakoa da:

A geruza	Erromatarra. Burdin Aroa. Brontze-neoeneolitikoa.
B geruza	Itxura Neolitikoa. Aurreneolitikoa edo Aziliense-ostekoa, Asturiense ñabarduraduna.
C geruza	Aziliense aldia. Madeleine aldia, V-VI.
D geruza	Madeleine aldia, III.a, agian IV.a; Solutrense Berandukoa.
E geruza	Auriñaziense ohikoa, Gravetienseko pieza bat duelarik.  Auriñaziense ohikoa, Kastelperronienseko ñabarduraduna.

### Animali irudi grabatu edo pintatuak.

Santutegi paleolitikoa, multzoaren lehenengo elementu ezagun eta nagusia dena, kobaren sakonunean dago, galeria nagusian eta bertatik abiatzen diren alboko ganbaretan banatuta. Pinturen eta grabatuen multzo nagusia T. Aranzadik, J.M. Barandiaranek eta E. Egurenekin aztertu eta gorago aipatutako bibliografian argitaratu zuten. Beraien ustez, Beranduko Madeleine aldikoa zen hura. Beste alde batetik, André Leroi-Gourhanek *Prehistoire de l'Art Occidental* uste izan zuen santutegiko multzoa berak definituriko IV. estilokoa zela: haren kultur afiliazioa frantses sekuentziako Madeleine aldiko III-IV. estiloa omen zen. Grabatu edo pintatutako animalien irudien multzo interesgarria da. Irudiotan honako animalia hauek ageri dira, kopuruaren hurrenkerari jarraiki: bisontea, zaldia, ahuntza, oreina eta hartz arrea. Leroi-Gourhanek *jainkotegi sakona*, deiturikoa osatzen dute. Labar-multzo hau bat dator autore horrek hobetsiriko eredu teorikoarekin.

Labar-arte, koban irudikatutako dagoena, hiru eremu zehatz-zehatzetan banatuta ageri da. Multzo nagusia Gela Zaharra da, aztertzeke fasean dagoela eta publikoarentzat itxita dagoena, bi gune dituen: gela itxina eta ganbara. Bertan daude arte-agerpide nagusiak, askotarikotasuna eta askotasuna kontutan harturik. Galeria nagusian zehar beste gune bi ikus daitezke, irudi gehiago daudenak: Gela Zaharren aurreko gelako sabaian pintaturik akerra dago, eta Gela Berrian bi bisontek, zaldi batek eta ahuntz batek osaturiko multzoa.

Santimamiñeko hirugarren erakargarritasun handia, publiko orokorrak preziatuena agian, honakook batzearen ondorioa da: geologi potentzial esanguratsua, hainbat eraketa karstiko apertatsutan adierazia; eta barrunbera sartzeko erraztasuna, argitatzeko-obregatikoa eta korridoreen eta eskaileren barruko azpiegiturarengatikoa.

**Testua:** Miguel Unzueta Portilla.



### Santimamiñeko koba

Kortezubi. (*Basondo auzoa*).

#### Nola heldu:

Lekeitiorako errepidean, Gernikatik sei kilometrora. Behar bezala seinaleztaturik dago.

#### Bisiten ordutegia:

Itxita aldi baterako berritze-lanak egiteko.

#### Informazioa:

Kultura Ondarearen Zerbitzua  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Telefonoa: **944 066 957**.

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Kortezubi)

- Omarko baso margotua.
- Labe teilagina.

(Gauteguiz - Arteaga)

- Andre Mariaren parroki eliza.
- San Antolin basiliza.
- Ozollo Errota.

(Ereño)

- Ereñozarko San Migel basiliza.

(Forua)

- Erromatarren garaiko herrixka.

(Arratzu, Nabarniz, Mendata)

- Arrolako iruna.